



Ongi etorri Gure Zirkura

Gure Zirkuak bosgarren denboraldiari ekingo dio, gaur, Durangoko Otamotzena parkean. Sarrerak agortuta daude Interneten. • **2-3**



Itzuliko beste etapa amaiera bat Mallabian

Maiatzaren 14ko zapatuan Mallabia berriro ere protagonista izango da Itzulian, kasu honetan emakumeen lasterketako etapa amaiera bate-gaz. • **8**



Zornotzarrek erantzun sendoa eman diote herrian gertatutako eraso homofoboari

Zornotza • Joan zen zapatuan eraso homofobo bat gertatu zen Zornotzan. As-telehen arratsaldean herritarrek protesta egin zuten udal plazan biktimari elkartasuna adierazi eta erasoak salatzeke. Herriko

plaza jendez bete zen udalak, Talde Feministak eta Akelarre plataformak egindako deialdiari erantzuteke. EH Bilduk eraso "matxistei, homofoboari eta faxistei" aurre egitera deitu du. • **11**



Maiatzaren 1etik 31ra
bitartean

**UDABERRIKO
ESKAINTZAK**

SCHMIDT

Murueta Auzoa z/g
Eroski Merkatal Zentroa
48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt

SUKALDEAK - ETXEA - BAINUGELAK

"Magikoa da Durangoko auzo honetara etorri eta zirkuko karpa hau ikustea"

Gure Zirkuk bosgarren denboraldiari ekingo dio Durangon, Otamotzena parkean. Hiru astebururako sarrerak interneten salgai ipini eta berehala agortu ziren

KULTURA • JONE GUENETXEA

Euskal Herriak badu bere zirkua, Gure Zirkua. Oraingo honetan, Durango aukeratu dute karpa ipini eta denboraldi berria hasteko. Otamotzena parkean dena prest dago magia gauzatu dadin. Iker Galartza aktoreak bultzaturiko zirkua mimo handiz ondutako proiektua da. Sartu eta ikusi besterik ez dago.

Zein sentsaziozaz zatozte Durangora?

Sentsazio zoragarriarekin. Begira zelako bi urte pasatu ditugun. Badira hiru-lau urte Durangotik deitu zutela. Joatekotan ginen, gero pandemia etorri zen... Horregatik, bira Durangon hastea erabaki dugu, Bizkaiko bihotzean.

Hain erantzun ona izatea aurreikusten zenuten?

Jakin badakigu jendea gogotsu dagoela. Familiak, gurasoak, eta umeak zer esanik ez. Umeek musukoa duela bi aste kendu dute eskoletan. Antzerkian ere tokatu izan zait esperimintatzea. Lehenengo, %50eko aforoarekin. Gero, %100era iritsi ginen, eta gero maskara kentzea. Antzematen da gogo eta ilusio hori.

Gure Zirkua ezagutzen ez duenari zelan azalduko zenioke zer den?

Batzuetan topikoa ematen du zirkua magia dela esatea, baina magikoa da. Magikoa da auzo honetara etorri eta karpa hau ikustea. Magikoa da tunelaren barruan sartzea eta zer esanik ez hor barruan zaudenean arnasten duzuna eta usaitzen duzuna. Zirkua bere harmailekin, egurrekin... Mimo handiz egingakoa da. Esaten da: "Esadazu etxea nolakoa den txakurra ere halakoa izango da eta". Beraz, etxea nolakoa den ikusita, uste dut txakurrak ere onak dauzkagula, eta gozarazteko modukoa izango dela.

Zure seme-alabek eta emazteak ere zirkuan parte hartzen dute. Familia proiektu modura bizi duzue?

Poliki-poliki gure umeak ere etortzen dira. Normalean pozik, baina batzuetan alfer pixka bat ere ematen die. Oraingoan esan diegu tirolina parke zoragarri bat du-

gula zirkua ondoan eta pozik datoz. Herri bakoitzak badu bere zera hori. Beste artista batzuen seme-alabak ere etortzen dira eta beraien kuadrillatxoak daukate. Era batean edo bestean, denek parte hartzen dute emanaldian. Batzuek krispetak egiten lagunduz, beste batzuek abestietan abestuz, zilindro baten gainean edo zaharrenak trapezioan. Jakin badakit ipurdian ostiko bat jo eta alde egingo didatela egunen batean. Aitari sagardotegian lagutzen nionean hari

“Ematen du zirkua boladan dagoela. Neska-mutilei gustatzen zaie. Askok tailerretan parte hartzeko galdetzen digute”

ostikoa eman nion bezala, hauek ere emango didate niri, baina ahal den neurrian eutsi egingo diet.

Proiektu hau martxan ipini zenuenean, zenbatek esan zizuten zoratuta zaudela?

Jende askok. Zirkua ez dago modan. Horiek garai bateko kontuak dira. Horrek ez du funtzionatuko. Horrelakoak entzun nituen. Baina bestelakoak ere bai, etxetik hasita. Etxean esaten zidaten nahi nuena hori bazen, aurrera egiteko. Baze-kiten egiten nuena bihotzez egiten nuela. Ekain gure malabarista gazteak esaten duen bezala, "Ikerrek ez du karpa bat ekarri uda baterako". Gauza batzuk luzarorako etorri dira. Bihar edo etzi ez dakit non egongo garen, baina zirkua Euskal Herrira etorri da dagoeneko.

Zelan ipini duzue hau guztia martxan zerotik hasita?

Ikasi egin behar da. Italiarrekin asko ikasi dugu. Karpa bera Italia-koa da, Veneziatik ekarri genuen. Instrukzioak ere italieraz daude. Muntatzen dugunean, euskaraz hitz egin arren, hitz asko italieraz esaten ditugu eta jendea asko harritzen da horiek entzunda. "Ekarri



Iker Galartza

Antzezlea

AMEZKETA | 1977

ezazu horko paletti hori", esaten dugu. Paperean jartzen duen moduan esaten dugu. Inor ez da molestatu itzulpena egiten. Denborarekin asko ikasten da. Durangora etorri ginen egunean euria ari zuen, eta kamioia aurreko partean jarri beharrean atzean utzi genuen. Lan gehiago da, baina saiatzen gara ingurua txukun mantentzen.

Harrobiko jendea izatea ere garrantzitsua izango da ikuskizunetarako.

Ematen du zirkua bolada onean dagoela. Neska-mutilei gustatzen zaie. Askok tailerretan parte hartzeko galdetzen digute. Bilbon, Gernikan eta Gasteizen ikasi daiteke. Tolosan gure eskola txikia dugu. Txikiak badatoz. Futbolearen gertatzen den moduan, askotan gurasoek seme-alabek eurek baino ahalegin handiagoa egiten dute txikiak Messiren parekoak izan daitezen. Haurrek jolastu egin nahi dute eta zirkua oso leku egokia da horretarako. Zirkuan gauza asko transmititu daiteke. Konfiantza landu, elkarri eutsi, elkar ulertu, musikarekin

batera gauzak egiten ikasi, musika entzun, konpasean aritu, oreka landu... Pentsatzen ez zituen gauzak egiteko gai dela konturatzen da. Aste Santuan egin dugun ikastaro honetan, mutiko batek kable gainean batetik bestera ibiltzen ikasi du. Hori guztia oso betegarria da. Bestalde, egia da gure artista asko

“Zirkuan gauza asko transmititu daiteke. Konfiantza landu, elkarri eutsi, elkar ulertu, musika entzun...”

zaharrak direla. Ane Miren aurren erretiratu da, 47 urterekin. Orain arte hemen ez zegoen horrelakorik, eta Edinburgon, Bartzelonan eta beste hainbat lekutan ibili da. Bere karreraren bukaeran Gure Zirkua erekin topo egin du. Ortzi Acosta gasteiztarra zazpi urtez egon da Circo del Solen. Los Angelesen, Las

Vegasen, Japonian... ibili da, eta 45 urte ditu. Ez dakit zenbat gehiago iraungo duen [barrez]. Jende gaztea behar da, baina horrek pazientzia eta prozesu luze bat eskatzen ditu. Askotan saioa bera oso ikusgarria ez bada ere, ikusgarri egin daiteke gozatuz. Musika polit batekin eta argi polit batzuekin. Batzuek zirkua arriskuarekin ere lotzen dute, artista altuera batetik erorzen bada hil egin daitekeelako. Guk ez dugu horrelakorik nahi. Beste zirkubatzuetan barre egiten digute guk koltxonetak jartzen ditugulako. Nahiago dut behean koltxoneta bat izan, disgustu bat izan baino.

Pailazoaren figura aldarrikatzen duzu. Askotan gutxietsi egin da?

Guraso batzuk galdezka etortzen zaizkit: "Gure semeak edo alabak pailazo izan gura du. Hori non ikasten da?". Sei urte gaz jolas dezala Pirritx eta Porrotx izatera, Poxpolo izatera... guk egiten genuen bezala. Batek Mirrarena egiten zuen, besteak Foforena, Milikirena... Jolastea eta irudi-

mena lantzea da gakoa. Badakit gaur egun zaila dela makina asko ditugulako tartean. Gure umeei geroz eta gehiago kostatzen zaie pentsatzea, gauzak imajinatzen edo amesten egotea. Niri neuri etxean gertatzen zait. Horixe da egin behar dena. Kendu makinak eta jolastu. Zuhaitz Gurrutxagak esaten duen moduan, pailazoa izateko listoa izan behar da. Ton-toarena ondo egiteko listoa izan behar da. Gainera, beste edozein lan bezala, pailazoarena duina eta esker onekoa da. Pailazook jendearen irribarreak ikusten ditugu. Emozioak transmititzen ditugu eta txikiek argazkiak atera nahi dituzte gurekin. Edozeinek sinatuko luke horrelako lan bat.

Umorean sentitzen zara eroso?

Egia esan, normalean umorea egiteko deitzen didate, esparru honetan nahiko ondo moldatzen naizelako. Orain, *Irabazi arte* tele-sailean beste pertsonaia bat tokatu zait, eta ni segituan neureak egiten hasten naiz eta zuzendariak berehala esaten dit: "Iker, poliki". Hori ere gustatzen zait, zuzendariak eusten nauenean. Gustatzen zait gauza desberdinak egitea. Baina gauza desatseginak egitea ez zait gustatzen, fikzioa dela jakin arren. Bortxatzaile baten papera egitea ez litzaidake gustatuko. Ez daukat egin beharrik. Agian beste aktore

batek esango luke gauza ezberdinak egitea gustatzen zaiola, baina ez litzaidake neure burua paper horretan ikustea gustatuko.

'Irabazi arte' telesailak oso harrera ona izan du.

Grabatzen ari ginela zirkura etor-tzen nintzen bakoitzean esaten nien sentsazio onekin nentorrela eta funtzionatuko zuela. Oso harro sentitzen naiz ETBk euskaraz gau-za hauen aldeko apustua egitega-tik. Bestela, aizkoraren, pilotaren eta jende helduaren telebista bat geratuko litzaiyuke. Gure nes-ka-mutilek Youtubera edo Netflixera jo behar ez izatea euskaraz zerbait ikusteko, gainera produktua ondo eginda badago, duina bada eta gaurko gaiak lantzen baditu... hor-tik joan behar dugu.

'Lehendakariagaia' antzezlanagaz ere ibili zarete. Zer moduz?

Oso esperientzia ona izan da. Lan handia egin dugu. Zuhaitz Gurrutxagarekin lan egitea plazera izan da. Hasieratik ondo elkar ulertu dugu. Zuhaitz oso metodikoa eta diziplinatua da eta horrek asko laguntzen dit. Lehendakaria bera noiz etorriko zain egon naiz, baina ez da etorri. Espia asko bidali ditu. Diputatu eta parlamentari asko ikusi ditut. Pena da. Durangon izan ginenean etorriko zela pentsatu nuen, baina ez. Ni joango nintzate-ke ikustera.



MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK 2022-2023

Eskaintza akademikoa	Ate irekien jardunaldia
•Automatizazioa eta Robotika Industrialia	Maiatzak 7 11:00
•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa	Maiatzak 7 11:00
•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua	Maiatzak 7 11:00
•Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa	Maiatzak 7 11:00
•Mekatronika Industrialia	Maiatzak 7 11:00

www.mondragon.edu/lanbideheziketa onarpena.lhm@mondragon.edu
664 298 704 - 664 298 683

GEROA

EREIN

Zergatik aukeratu zenuen Mekatronika Industrialia ikastea?

Mekatronika Industrialia ikasketak aukeratu nituen gero lan irteera handia dutelako. Aurreko lanean ez nengoen oso gustura, eta, ikasteko garaia orain zela konturatutik, eszedentzia eskatu eta ikasteari ekin nion, etorkizun hobe baten bila.

Zergatik MGEPn?

Ate irekietan egon nintzen, eta MGEP, besteekin alderatuz, instalazio aldetik nabarmen hobeto prestatuagoa zegoela iruditu zitzaidan. Erronkek eurek ere, interesgarriago ziruditen. Horrez gain, gurasoak hemen ikasiak dira eta iritzi ona zuten.

DUALean egon zara; zer-nolako esperientzia izan da?

Oraingoa nire bigarren DUALa da, aurreko zikloan ere DUAL progra-man ibili bainintzen, eta, zalantzarik gabe, ezinbesteko esperientzia izan da bi kasuetan. DUALari esker ikasitakoa hobeto barneratzeaz gain, lan egiten ere ikasten duzu; gainera, pertsona helduekin, profesionalekin, lan egiteak beste perspektiba bat ematen dizu. Horrez gain, urtebetez lan egiteko aukera ematen dizu, praktikak motzegiak baitira. Praktketan esku pixka bat hartzen hasten zarenerako eta tailerreko dinami-ka ulertu, amaitu egiten dira, eta, DUALari esker, esperientzia hori luzatu eta barneratzeko aukera daukazu. Mondragon Assemblyn egon naiz DUALa egiten. Mondragon Assemblyk hainbat departamentu ditu eta ni makina berezien arloan ibili naiz. Bertan edozein motatako makinak muntatzen ditugu: medikuntza arloko makineria, gurgilei pegatinak itsasteko makinak... Beren kabuz makinak produzitu ezin dituzten enpresak izan ohi dira gure bezeroak. Beraiek makinak diseinatzen dituzte eta guk muntatu egiten ditugu, hobekuntzak proposatuz ikusiz gero.

Nire lana makinak muntatzea izan da, besteak beste. Azken finean, makinak muntatu ahal izateko aurretiko prestakuntza bat behar da. Pieza guztiak iritsi direla ziurtatu beharra dago, planoarekin bat datozela ikusi, azpimultzoka banatu eta abar. Adibidez, medikuntza edo janariarekin zerikusia duten makinetan izapide dezente egin beharra dago, dena zorrozki gainbegiratzen denez pautu batzuk jarraitu beharra baitago.

Oso gustura ibili naiz, asko ikasi dut, lankideek lehenengo egunetik bat gehiago banintz bezala hartu ninduten eta asko erakutsi didate, galdera guztiei erantzuteaz gain. Lehenengo egunetan laguntza handia izan nuen, lankide batekin batera egiten nituen lan guztiak mekanikak ulertzeko, eta, segituan, pixkanaka, autonomia hartzen joan nintzen.

Mondragon Assemblyn eginiko lanetan, zikloan ikasitakoa erabili duzu?

Bai, asko erabili dut: planoen interpretazioa, torlojuen izendapena, zulo hariztatuak nola egin, konektoreak jarri kableei, zirkuitu pneumatikoak osatu... Lan mekaniko asko. Ikasitako guztia ez dut erabili; izan ere, muntaia mekanikoa izanik, PLCren programazioa ez dut erabili, gure lanean ez baita sartzen.

Jon Ander Zabaleta Korta (Donostia)

Berdeago Azokak ateak zabaldu ditu alternatiba energetikoak erakusteko

Edizio honetako aurkezpenetarikoz batzuk autokontsumoari eta efizientzia energetikoari buruzkoak izango dira. Azoka asteburu bitan egingo da: maiatzaren 6tik 8ra eta 14tik 15era. Berdeagok 10 urte bete ditu aurten Landako Gunean

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Iazko parentesiaren ondoren, Berdeago Azoka bueltan da. Aurten, 10. aldia beteko du Durangoko Landako Gunean. Ohiko moduan, urtarrilaren amaieran barik maiatzaren zehar egitea erabaki dute antolatzaileek, osasun baldintzak hobeak direlako. Azoka asteburu bitan banatuko dute. Maiatzaren 6tik 8ra azoka energiari buruzkoa izango da, Berdeago Energy zenagaz. Maiatzaren 14tik 15erako kontsumo arduratsuaren gainekoa izango da, Berdeago Nature izenburupean.

Ekimena antolatzerakoan, energia krisia buruan izan dute. "Autokontsumoa eta antzerakoak izango dira gai izarrak aurten", azaldu du Javier Sánchez Berdeagoko koordinatzaileak. Esaterako, postu bat herri barruko energia eolikoari buruzkoa da. Beste batzuek energetikoki efizienteagoak izateko gailuak ekarriko

dituzte. Ekoetxe proiektuari buruz gehiago jakiteko aukera ere egongo da eta ez dira komunitate energetikoei buruzko saioak faltako. Sanchezek azaldu duenez, Energiaren Euskal Erakundeak eta Mondragon taldeak horrelako

komunitate bat sustatzeko asmoa dute Durangaldean.

Durangoko eragileek ere parte hartuko dute azokan. Esaterako, Dendak Baik moda jasangarriaren desfilea egingo du maiatzaren 14an, 19:30ean; gastronomia

gunea Durango Rugby Taldeak dinamizatuko du, San Antonio ikastetxeko gazteek birziklatutako materialekin egindako erakusketa bat ipiniko dute eta Iurreta lanbide Heziketak auto elektrikoa erakutsiko du.



2020ko otsailean egindako Berdeago Azokaren une bat.

Durangon martxan da komertzioetako deskontu bonuen kanpaina

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak deskontu bonuen kanpaina berria hasi du, komertzioetako salerosketak sustatzeko asmoz. 10 euroko bonua baliatuta, erosleek 15 euroko erosketa egin ahalko dute. Txartelak bide telematikoen bitartez erosi beharko dira, *bonoa.durango.eus* atarira jota. Herritar bakoitzak lau bonu erosi ditzake gehienez. Udalak aurreratu du aurten hiru deskontu kanpaina egingo dituela. Honako hau izango da lehenengoa. Eta bertara atxiki gura duten establezimenduek maiatzaren 31ra arteko epea dute izena emateko. Horretarako dokumentazioa Herritarrentzako Arreta Zentroan aurkeztu beharko dute, iaz horrelako kanpainetan parte hartu bazuten ere eta izena emanda egon baziren ere.

Gobernu taldeko kideek diotenez, bonu hauetarako diru kopurua orain hiru urtekoa baino handiagoa da, "bai negozioen eta baita bezeroen onurarako ere".

Durangoko EAJk Gernikakoaren moduko osasun zentroa eraikitzea proposatu du gaur egun indarrean dagoen PERla mantenduta

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko EAJk "alternatiba bat" planteatu dio gobernu taldeak eta Jaurilaritzak esku artean duten aurre akordioari. PERlaren orubean Gaitasun Handiko Osasun Zentro bat eraikitzea proposatu dute, horregaz durangarren zein eskualdeko herritarren "osasun beharrianak eta eskariak" betetzeko. Osasun zentro hori ez litzateke ospitalea izatera ailegatuko, baina jeltzaleek azpimarratu dute Gernikakoaren pare-

ko zentro bat litzatekeela. "Lehen Arretako zerbitzuak, medikuntza eta pediatria, larrialdiak, espezialitateetarako kanpo-kontsultak eta proba diagnostikoak" hartuko litzuzke azpiegiturak. Zentroagaz, "gaur egun ospitaleetara egiten diren lekualdaketa asko" saihestea gura du EAJk. Proiektua egitekotan, anbulatorio zaharreko eta Landakoko osasun zentroko zerbitzuak PERlaren eremuan zentralizatuko lirateke, "efizientzia" irabazita.

Proiektuak proposatzen dituen beste puntu batzuek etxebizitzei, berdeguneei eta aisialdiari eragiten diete. Orubea 45.000 metro karratuko "parke publiko handi batez" osatzea proposatu du EAJk. Eraikinetako batean "Babes Ofizialeko 111 etxebizitza" eraikiko lirateke, eta gainerako bost eraikinetan etxebizitza libreak egingo lirateke. "Hamar solairuko eta atikodun eraikinak", Elkoroiriberen berbetan.



Durangoko EAJko kideak, proiektua erakusten duten infografiak eskuetan.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko maiatzaren 6a
20. urtea - 891. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Plazara egitasmoa egingo dute asteburu honetan, Durangoko elkarteek lana herritarrei ezagutarazteko

Elkarteek herriko kaleetara irtengo dute haien jarduna jendaurrean erakusteko. Andra Marian, Ezkurdin, Bizenta Mogel Bibliotekan, San Agustin Kulturgunean, Jesuiten Etxean, Landakoko sotoan, Ibaizabalen eta Madalenen egongo dira



Udal ordezkariak eta elkarteetako kideak.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Udalak Plazara ekimena sortu du, durangarrei herriko elkarteak ezagutarazteko asmoz. Horretarako, hainbat kolektibok herriko hainbat tokitara irtengo dute asteburu honetan, ate irekien jardunaldi batzuk eskaini eta egiten duten lana erakusteko herritarrei. "Durangoko elkarte ehunak

potentzial ikaragarria du, baina askotan oharkabeen pasatzen da gainerako durangarrentzat", adierazi dute Julián Ríos eta Juanan Bueno arduradunek. Horregaitik erabaki dute egitasmo berri hau sortzea, "elkarteak kalera irten daitezen eta gainerako durangarrek zelako lana egiten duten ikusi dezaten".

Leku hauetan garatuko dituzte ekimenak: Andra Mariko elizpean, Ezkurdi plazan, Bizenta Mogel Bibliotekan, San Agustin Kultur Gunean, Jesuiten Etxean, Landakoko sotoan, Ibaizabal parkean, Madalena ermitan. Egitasmoak asteburuko egun bietan eskainiko dituzte, zapatuan eta domekan. Aurtengo edizioan honako elkarte

hauek arituko dira: Gerediaga Elkartea, Asebier, Asociación De Enfermedades Raras De Euskadi, Alcer Bizkaia, Adolescentes-Fundación Gizakia, San José Jesuitak Durango, Asociación Cultural Vicente Zavalá/Kultur Elkartea, Centro Cultural Andaluz, Doinuzahar Kamara Abesbatza, Eragin Trebakuntza Eta Garapena, Bogoroditsie Abesbatza eta Bidezabal Durango Atletismo Taldea.

"Durangoko elkarte sareak potentzial ikaragarria du, baina askotan oharkabeen pasatzen da"

Egitaraua anboto.org-en

Soinu terapiak, jende aurreko entseguak, sevilana klaseak, Astola aldizkariaren aurkezpena zein mahai-inguruak egongo dira asteburuan zehar. Egitarau osoa ANBOTOn atari digitalean kontsultatu daiteke.

Garaitarrek paella eta entrekota izango dituzte San Isidro eguneko bazkarian

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko Nagusien Elkarteak urteroko ohitura berreskuratu du izurriak eragindako etenaldiaren ondoren. Maiatzaren 15ean San Isidro eguneko bazkaria egingo dute. Eguna meza santuagaz hasiko dute. 12:30ean hasiko da elizkizuna. Gero, 14:30ean, herri bazkaria egingo dute Otea Loran elkartearen. Antolatzaileek jakinarazi duteenez, honakoa izango da menua: paella, entrekota piperrekin eta euskal pastela. Bazkalorduan ura zein ardoa izango dute, eta, bazkalondan, kafea.

Bazkarirako izena eman gura duenak 695 787 439 telefonora deituta egin beharko du erreserba, hilaren 10a (martitzena) baino lehenago. Izena emateko beste bide bat *Garai Biziondo* izeneko whatsapp taldea erabiltzea da. Mezularitza talde horretako kide diren garaitarrek bertan egin dezakete erreserba, taldera mezu bat bidalita. Herri bazkarirako txartelak 25 euro balio du.

AURREMATRIKULA

Maiatzaren 9tik 27ra



Anima zaitez!

info gehiago gure
webgune eta sare
sozialetan



943 20 32 44
eibar@armeriaeskola.eus
www.armeriaeskola.eus



"Etorkizun baten oraina"



ArmeriaEskola^x



Joan zen zapatuan Mozorro Eguna ospatu zuten.

Gazte eguna eta paella txapelketa bigarren asteburuko plater nagusiak

Gaur gauean bertso saioa eta Gozategi, State Alerta eta Estutu taldeen kontzertuak egongo dira, besteak beste

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Jaietako lehenengo asteburu jendetsuaren ondoren, abadiñarrak prest dira bigarrenari ere ekiteko. Gaur, esaterako, 21:30etan hasita, txosnagunean Gozategi, State Alerta eta Estutu taldeen kontzertuak egongo dira, eta 22:00etan bertso saioa Errota Kultur Etxean.

Asteburuko plater nagusiak zapatuko Gazte Eguna eta paella txapelketa izango dira. Gazte Egunari txupinazoagaz eta bazkariagaz emango diote hasiera. Arratsaldean Gazte Eguneako jokoak izango dituzte, eta, ostean, kalejira Sakatu taldeagaz. Gauean, Nikotina, McOnak, DJ

Txusti eta Inshore taldeen kontzertuak egongo dira.

Jaiei domekan emango diete amaiera, maiatzak 8, 20:00etan, Donien Atxa kenduta.

"Asteburu arrakastatsua"

San Prudentzio jaietako lehenengo asteburuan jendetza batu zen Traña-Matienan, eta Mikel Garaizabal alkateak balorazio positiboa egin du. "Lehenengo asteburua arrakastatsua izan da eta esango genuke ondo joan dela. Jende asko ibili da eta eguraldia ere lagun izan dugu. Oso giro polita egon da. Ia bigarrenari ere horrela doan", gaineratu du alkateak.

'Elorrixon Dendarik Denda' kanpaina martxan, maiatzaren 31ra bitartean

Aurten ez da bonu fisikorik egongo. Aplikazio mugikor bat sortu dute kanpainari atxikitako 24 saltokiek transakzioak kudeatzeko eta erosketa bakoitzaren erregistroa eramateko

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

'Elorrixon Dendarik Denda'-ren beste kanpaina bat martxan da. Elorrioko Udalak eta EME merkatarien elkarteak tokiko saltoki txikien jardura sustatzeko egingen duten kanpaina maiatzaren 31ra arte egongo da martxan.

Aurten, gainera, kanpainak nobedade garrantzitsu bat izango du. Ez da bonu fisikorik egongo eta transakzioak eta erosketa bakoitzaren erregistroa aplikazio baten bitartez egingo dituzte. "Honegaz, pertsonei saltokietako erosketak erraztu eta arindu gura dizkiegu", azaldu du Maria Herrero Elorrioko Udaleko alkateordeak.



Elorrioko Udaleko eta EME merkatariei elkarteak kideak.

Uda ostean Nagusien Etxea zabalduko dute, hainbat hobekuntza eginda

Lehenago, ekainean eta uztailean, egokitu egingo dute



Nagusien Etxeko eraikina.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Nagusien Etxea uda ostean zabaltzea aurreikusten du udalak. Udaletik jakinarazi dutenez, zabaltze baina lehenago, ekainean eta uztailean, zenbait lan egingo dute eraikina hobetzeko eta egokitzeko. "Itxita egon den bitartean, Atxondoko Udalak balantze bat egin du Nagusien Etxea berriro zabaltzeko beharrezkoak diren beharrezkoak buruz", azaldu dute Atxondoko Udaletik. Azaldu dutenez, irisgarritasuna hobetzea eta lokaleko komunak hobetzea premiazkoa da. Udalak 30.000 euroko aurrekontua du lan horiek egiteko.

Bestalde, Atxondoko Udalak aurreko emakidadunak zuen 7.000 euroko zorrari ere aurre egin behar izan diola esan dute.



**UNI
EIBAR
ERMUA**

ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

IKASTETXE
PUBLIKO
DOAKOA

www.uni.eus

LANBIDE HEZIKETA 2022-23

**AURREMATRIKULA
MAIATZAREN 9tik 27ra**



JARDURA FISIKOAK ETA KIROLAK



MERKATARITZA



INFORMATIKA



ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA

Otaola Hiribidea, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943 89 92 11 | idazkaritza@uni.eus | @uni.eus

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

> anboto

Emakumeen Itzuliko etapa bat Mallabian hasi eta amaituko da maiatzaren 14ko zapatuan

Txirrindulariak eliza ondoko harbidetik igoko dira eta errepidera heltzean amaituko da etapa, jubilatuen taberna aurrean

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Gizonen Itzuliko etapa amaiera bat hartu eta hilabetera, Mallabia Itzuliko protagonista bihurtuko da berriro ere. Kasu honetan, emakumeen Itzuliko etapa bat egaitik. Maiatzaren 14an, Mallabian hasi eta amaituko da UCI World Tour mailakoa den etapa.

Mallabikoa Itzuliko bigarren etapa izango da. Lasterketa udaletxe parean hasiko da, 10:00 inguruan, eta 117 kilometroko ibilbidean bost mendate puntugarri igaroko dituzte: Areitio, Muniketa, Milloi, Trabakua eta Karabieta. Azken hori lehenengo mailako mendatea da.

Etapa 10:00etan hasiko da, udaletxe parean; 13:15 ingururako amaitzea aurreikusten dute



Jubilatuen tabernaren ondoan amaituko da etapa.

Etapa amaiera ere aldats gora da. Elizalde Plazatik sartu, harbidea hartu eta eliza ondotik igoko dira. Errepide nagusira heltzen direnean amaituko da etapa, jubilatuen taberna ondoan. 13:15 edo 13:30 inguruan helduko dira. Gizonen lasterketa gorago amaitu zen, San Pedro ermitaren ondoan,

baina emakumeen taldeetako zuzendariekin kontsultatu eta gero, etapa amaiera haraino ez luzatzea erabaki dute. Podiuma etapa amaitzen den tokian egongo da, ondoko aparkalekuan.

Orain hilabete gertatu zen moduan, etaparen hasieran eta amaieran trafikoa moztuko dute. Bestalde, txirrindularitza taldeek

Areitiotik Mallabirako jaitsieran utziko dituzte euren kamioiak.

Mallabiko 'horma'

Udal arduradunek gizonen etapari sortu zen giroa errepikatzea itxaroten dute. Orduko etapa amaierak Mallabiaren izena lau haizetara zabaltzeko balio izan zuen, Igor Agirre alkatearen esanetan.

"Orain zikloturistak sarritan etortzen dira Mallabira, batzuetan taldean, eta Mallabiko 'horma' non dagoen galdetzen dute. Kalbario kaletik gorako bidea esan gura dute. Herria eza-gutarazteko balio izan du. Antolakuntza ere oso ondo irten zen. Alde horretatik, oso pozik gaude", azaldu du.

Otxandion 'Amuak bota ditu' kanta grabatuko dute ETBko programa baterako

OTXANDIO • J.D.

Pausoka ekoiztetxea 'SOS Kantak arriskuan' izeneko programa berria lantzen dabil Euskal Telebistarako. Programa horretako atal bat Otxandion grabatuko dute. Kanta zahar bat berreskuratzea eta kanta horri buruzko istorioa ikasi eta herritarrei zabaltzea da helburua. Otxandion, 1880tik 1910era arteko kanta bat ezagutu dute, *Amuak bota ditu* izeneko, eta herritarren laguntzagaz kantatu eta grabatu gura dute. Horrela, maiatzak 10, martitzena, 15:00etan, abesbatzaren proba grabatuko dute Andikona plazan, eta kanta ikastera animatuko diren herritarrak behar dituztela azaldu dute Pausokatik.

Maiatzaren 12an, eguna, Otxandioko plazan abestuko dute kontzertu txiki batean, 18:00etan. Grabazioak antolatzeko, zenbat jende joango den jakin gura dute. Interesdunek 609 268 037 zenbakira idatzi edo deitu dezakete.

Santo Tomasera bidean hesi bat ipini dute hara doan auto kopurua gutxitzeko

IZURTZA • J.D.

Izurtzako Udalak gutxitu egin gura du Santo Tomas parkera doan auto kopurua, eta hauxe egin du horretarako: parkerako bidean, zubia igaro eta hantxe bertan, hesi bat ipini du Aste Santuko egunetan. Santo Tomaseko parkea garbiago mantentzea da erabaki honen helburua.

Bertara autoz joatea eragotzita, parkea garbiago mantenduko dela uste dute udal arduradunek

Parke ondoraino kotxea eramatea galarazita, bisitariak gauza gutxiago eramango dutela uste dute udal arduradunek, eta, ondorioz, parkea garbiago mantenduko dela.

Hesia jaitsita egongo da asteburuetan. Eta astegunetan txatartegi enpresako orduetan baino ez da egongo zabalik.

Anje Duhaldek kontzertua eskainiko du Mañarian

Maiatzaren 15ean joko du, herriko plazan, udalak hile osorako antolatu duen ekintza sortaren barruan

MAÑARIA • J.D.

Maiatzean zehar, askotariko ekitaldiekin gozatzeko aukera egongo da Mañarian. Horien artean, Anje Duhalderen kontzertua nabarmendu daiteke. Musikari lapurtarra herriko plazan ipiniko duten oholtzara igoko da maiatzaren 15eko domekan, 12:00etan. Duhalde euskal rockaren aitzindari izan zen 70eko hamarkadan, Errobi taldeagaz. Gerora, makina bat disko kaleratu du bakarlarri modura zein elkarlanean.

Aurreko egunetan ere badago zegas gozatu. Maiatzaren 13an, 18:30ean, Barsanti Teatroko ki-deak *Legea gara gu* kale antzerkiagaz etorriko dira. Antzezlanak, umorea oinarri hartuta, plaza

bateko kale zurrutari amaiera emateko asmoz doazen polizia biren istorioa kontatzen du.

Marko kobara bisita

Mañariko lurretan Marko izeneko kobazuloa dago. Urkiolako Parke Naturaleko altxorretariko bat da eta maiatzaren 14an espeleologia irteera bat antolatu dute koba ezagutzeko. Parte hartu ahal izateko, maiatzaren 6a baino lehenago eman behar da izena, udaletxean.

Egun berean, Hutsun txalaparta taldearen 'Urbasa' kontzertua ikusteko aukera ere egongo da, plazan, 20:00etan. Maiatzaren 20tik 22ra ere hainbat ekintza egongo da; tartean, azoka bat.



Anje Duhaldek 50 urte daramatza plazarik plaza.



13 barikua

"LEGEA GARA GU"
KALE ANTZERKIA

18:30etan Herriko Plazan.

14 zapatua

ESPELOLOGIA "MARKO"

(OHARRA: Izena Maiatzak 6 orduko
eman behar da udaletxean)

eta iluntzean...

HUTSUN TXALAPARTA TALDEA

Urbasa ikuskizuna. 20:00etan plazan.

15 domeka

ANJE DUHALDE

12:00etan Herriko Plazan.

18 eguaztena

IPUIN KONTALARIA
KULTUR ETXEAN

- 18:00etan "Ameli eta Xirrikiten jostunak" umeentzako saioa.
- 19:30etan "Isiltzen joan zirenak" helduentzat.

20 barikua

"TIPULAREN
SEHASKA KANTA"

19:00etan liburutegi
zaharrea.

21 zapatua

"ZIRKOBIRA"
KALE ANIMAZIOA

17:30etan plazan.

22 domeka

AZOKA

10:00etatik aurrera
plazan.

MAÑARIKO
MAIATZA KULTURALA



MAÑARIKO UDALA

BERRIZ • J.G.

Berrizko Udalak XXIII. Kaleko Pintura Lehiaketa antolatu du maiatzaren 7rako. Lehiaketako arduradunek azaldu dutenez, "16 urtetik gorako pertsonen parte hartu ahal izango dute, eta aurreko edizio guztietan gertatu den moduan, lanak aire zabalean egin beharko dira, Berrizko udalerriaren barruan, herriko irudietan eta elementuetan oinarrituta eta lehiaketaren egun berean".

Obrak formatu eta teknika librean egin ahal izango dira, eta parte hartzaileek euren lanak egiteko behar dituzten material eta tresnekin joan beharko dute lehiaketara. Euskarriak Berrizko Kultur Etxean zigitatuko dira, lehiaketaren egunean bertan, 8:30etik 9:30era, eta 13:30etik 14:00etara bitartean Olakueta plazan entregatu beharko dira, parte-hartzaile bakoitzak ekarritako astoan. Epaimahaiak 14:30etik aurrera emango du bere erabakiaren berri, eta, jarraian, 700 euroko saria emango diote irabazleari. Bigarren sailkatuak 600 euro jasoko ditu eta hirugarrenak 500. Lehenengo hiru sarrituen artean berriztarrik ez badago, herriko saria 400 eurokoa izango da. Sarituriko lanekin erakusketa bat egingo dute Berrizko Kultur Etxean, maiatzaren 9tik 21era.

Berrizko Kaleko Pintura Lehiaketa antolatu dute maiatzaren 7rako

Irabazleak 700 euro eramango ditu poltsikora, bigarrenak 600 euro eta hirugarrenak 500 euro



Julio Gomez leioarrak irabazi zuen iazko lehiaketa.



'No somos nada'. TAMBOURA FILMS

'No somos nada' dokumentala, Zaldibarren

Ikus-entzunezko lanak La Polla Records talde mitikoaren ibilbidea laburtzen du; maiatzaren 12an eskainiko dute

ZALDIBAR • A. M.

Evaristo Páramos buru duen La Polla Records talde mitikoa 2019an bueltatu zen, agurtzeko asmoz: bira iragarri zuten eta diskoa eta dokumentala kaleratu zituzten; Javier Corcuera peruarak zuzendu zuen dokumentala. Datorren egunean, maiatzak 12, liburutegi zaharrean eskainiko

dute, 18:30ean. *No somos nada* artxibategiko irudiak agur birako irudiekin uztartzen ditu. Horrez gainera, Evaristo Páramosi eta Abel baxu-jotzaileari eginiko elkarrizketak dira istorioaren haria. Funtsean, Euskal Herriko punk talde famatuenetarikoaren 40 urteko ibilbidearen testigantza da dokumentala.

Iurretako Jubilatuen Etxea berriztu eta irisgarritasuna hobetuko dute

Udalak 170.000 euroko inbertsioa egingo du eta lanak uda ondoren hastea gura dute



Udal arduradunak Goiuriako Ama nagusien elkartearen kideekin.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Jubilatuen Etxea berriztu egingo dute; irisgarritasuna hobetu eta traba arkitektonikoak kenduko dituzte. 2021eko aurrekontuan jasoriko proiektuak seinaleak hobetzea eta altzariak ordezkatzeari ere jasotzen du. Udalak 170.000 euroko inbertsioa egingo du eta lanak uda ondoren hastea aurreikusi dute.

Udalak Goiuriako Ama nagusien elkarteko proposamenak batuta osatu du Jubilatuen Etxea eraberritzeko proiektua. Lanek

273 metro koadroan eragingo dute, zati bitan banatuta. Kafetegiko barra, sukaldea, despentsa, hainbat zerbitzutarako lokala, biltegi bat eta elkartearen bulegoak hartzen ditu egoitzak. Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu duenez, "lokala nagusien egungo beharrianetara egokitzea" da helburua. "Espazio moderno eta atsegina eduki gura dugu, bai ohiko erabiltzaileentzat, bai edozein unetan joan gura duten herritarrentzat", esan du.

Altzariak eta seinaleak berriztuko dituzte, lokalaren kanpoko arotzeria ordezkatu, instalazio elektrikoa eta klimatizazio-sistema egokitu, eta argiztapen berria ipiniko dute. Komunak eta txorrotak ere konponduko dituzte eta dena margotuko dute.

Iurretako Goiuria auzoko Santi Kurutz jaiak ospatuko dituzte zapatuan

IURRETA • A.B.

Santi Kurutz jaiak ospatuko dituzte, zapatuan, Iurretako Goiuria auzoan. Iurretako dantzarien saioagaz hasiko dute ekitaldi sorta, 18:30ean. Ondoren, Igor Elortza eta Eneko Abasolo 'Abarkas' bertsolariek abestuko dute, eta, 20:00etan hasita, Kittu plaza-taldea girotuko du gau giroa. Labeldun pintxo dastatzea ere egongo da, 18:30ean.

Estetika gida

anboto



NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia



IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491

Zornotzako herritarrek erantzun sendoa eman diote joan zen asteburuan izandako eraso homofoboari

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Kezka, haserrea eta ardura. Zornotzako herritarren artean sentipen horiek nagusitu ziren astelehenan. Herritarrek protestarako deia jaso zuten udalaren, Talde Feministaren eta Akelarre Aniztasunaren Aldeko Plataformaren partetik, eta kalera irten zuten joan zen asteburuan herrian izandako eraso homofoboa salatzen. Udalak elkartasuna eta laguntza helarazi dizkie eraso jasan zuten

pertsonei eta familiei, eta gaineratu du onartezinak direla oinarritzko giza eskubideak errespetatzen ez dituzten erasoak eta indarkeria. Elkarretaratzea 18:00etan egin zuten eta ikusgai egon ziren LGTB komunitatearen ikurak. Ostadar bandera, bisexualen bandera eta transexualen bandera, adibidez.

Zornotzako EH Bilduk ere oharra kaleratu du. Elkartasuna adierazi die biktimei eta senideei, eta gaineratu du koalizio subiranista "ezin

harroago" sentitzen dela "herritarrek eraso salatzen erakutsitako jarreragaz". EH Bilduk jakinarazi du zapatuko erasotzaileak bat baino gehiago izan zirela, eta gaineratu du erasoan "herriko ordezkari politiko bat" eta "beste zornotzar batzuk" kolpatu zituztela, hain zuzen ere, eraso homofoboa jaso zuen pertsona defendatu gura izateagaitik. Koalizioak eraso "antidemokratiko, koldar, matxista, homofobo eta faxistei" aurre egitera deitu du.



Zornotzako LGBTI komunitateko kideek protestara irten zuten.

Konbenioaren 150. urteurrena gogoratzeko egitarau zabala Zornotzan

'Amorebietako Ituna' 1872ko maiatzaren 24an sinatu zuten



Zornotzako udal ordezkariak eta Patxi González (erdian) egitarauaren koordinatzailea.

ZORNOTZA • J.D. / E.H.

Maiatzaren 24an 150 urte beteko dira Zornotzako Konbenioa, Hirugarren Gerra Karlistako ituna, sinatu zenetik. Udalak egitarau zabala prestatu du urteurrena gogoratzeko. Programazioko osagaietarikoa bat erakusketa da. San Miguel kalean dago ikusgai, eta maiatzaren 24ra arte egongo da bertan. Erakusgai dauden elementuen artean, hitzarmena sinatu zen jatorrizko mahaia dago.

Gainerakoan, berbaldiak, antzezlanak eta musika emanaldiak egongo dira. Joseba Tapia musikariak, adibidez, Gerra Karlisten garaiko bertso musikatuak eskainiko ditu. Behotsik Orkestrak ere emanaldia egingo du Aritz Labrador zuzendari zornotzarren aginduetara, eta antzezlan berezi bat ere taularatuko dute, urteurren honetarako beren beregi sorturiko *Bake antzua* obra. Egitarau osoa anboto.org atarian kontsultatu daiteke.

Ahal Duguk zirkulua eratu du Zornotzan, "demokrazia parte hartzailea" bultzatzeko



ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Ahal Dugu alderdiak zirkulu edo egitura berri bat sortu du Zornotzan. Herritarren antolakundea Miren Gorrotxategigaz batera inauguratu dute, Eusko Legebiltzarreko Elkarrekin Podemos - Ezker Batua alderdiko ordezkariagaz. Zirkulua sortzea "benetako

demokrazia parte hartzailearen adibide perfektu" lez baloratu du Gorrotxategik. "Jende arrunta sartzen da politikan, herri honetako kalitate demokratikoa hobetzeko. Gizarte zibil antolatua da gaur egun gozatzen ditugun eskubideen konkistaren jatorria", gaineratu du.

Maiatzak 12. Santo Domingo

- 19:00. GERBASen kalejira txistulariekin eta dantzarien ekitaldia, San Trokaz plazan (azken entsegua).

Maiatzak 13. Barikua

- 17:00. Umeentzako antzerkia probalekuan: Barrerabizi.
- 19:00. San Trokaz pilota txapelketa Tornosolo trinketeen.
- 19:00. Kontzertua Ferialeku plazan: Musikariak.

Maiatzak 14. Zapata. Gazte Eguna

- 08:00. Ganbarru Txirrindulari Elkarte. Ibilbidea: Abadiño-Gernika-Laida-Abadiño.
- 10:00. San Trokaz Eskuz Binakako pilota goxoa txapelketaren finalak Tornosolo trinketeen.
- 14:00. GazteBazkari herrikoia Ferialeku plazan. Ondoren, Gazte Eguneako jokoak.
- 16:00. Graffiti Tailerra. 12 eta 16 urte arteko gazteentzat. Txanporta Kultur Etxe aurrean.
- 18:00. Eskuz binakako San Trokaz txapelketa, haurren finala frontoian. Ondoren, kadete eta Sub22 mailetako San Trokaz txapelketako eskuz binakako finalak.
- 19:00. Kontzertua: Raimundo el canastero.

Maiatzak 15. San Trokaz

- 12:00. Meza Nagusia. Ondoren, ezpatadantzari eta irlanderen dantzaldia San Trokaz plazan.
- 17:30. Familia ikuskizuna: "La tartana" (Trocus Lucos) Ferialeku plazan.
- 19:00. Erromeria Oxabi taldeagaz.

Maiatzak 20. Barikua

- 18:00. DiskoTxiki Txanporta plazan: DJ Porru. Eurria bada, probalekuan.
- 22:00. Kontzertua Ferialeku plazan: Kantu bat gara - Jon Maia.

Maiatzak 21. Zapata.

- 11:00-14:00. Umeendako jolasak frontoian.
- 11:00-14:00. Gazteentzako Emozio Parkea. Etiza aurrean.
- 12:00. Kalejira: Otxote Muñatones.
- 14:30. Paella erraldoia Ferialeku plazan. Txarrelak salgai Mediatekan. Erosteko azken eguna: maiatzak 13. Prezioa: 8€. Jai batzordeak ogia eta postrea bananduko ditu.
- 16:00-19:00. Umeendako jolasak frontoian.
- 16:00-19:00. Gazteentzako Emozio Parkea. Etiza aurrean.

Maiatzak 22. Domeka

- 11:00. Artisautza azoka Txanporta plazan, Abadiño emakume artisau- sortzaileak antolatua.
- 11:30-14:00. Tailerrak Ferialeku plazan. 6-10 urteko umeentzat. Eurria bada, probalekuan.
- 18:00. Kalejira eta dantzaldia Talde Batuak taldeko umeekin eta Txanbolin taldeko txistulariekin Txanporta plazan.
- 19:00. Txokolatada Txanporta plazan. Hiper Eroski Abadiñoren laguntzagaz
- 20:00. GERBASi agur eta jaien amaiera.

SAN TROKAZAK 2022

Maiatzaren 11tik 19ra bitartean, kartel lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa Udal Mediatekan.

OHARRAK:

Euria egiten badau, kontzertuak artisautza azoka Ferialeku plazan egingo dira.

Egitarian aldatetarik egon ezker, www.abadiño.org eta www.santrokazjaiak.eus webguneetan agertuko dira.

Domekan oroimenak eta ospakizunak bat egingo dute Bizkargi egunean

Bizkargi eguna izen bereko mendian ospatuko dute. Goiz osoko egitaraua antolatu dute



Bizkargi eguneko artxiboko irudia.

ZORNOTZA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Domekan, maiatzak 8, Bizkargi eguna ospatuko dute. Urtero legez, ospakizuna eta aldarrikapena uztartuko dituzte goizetik eguerdira. 11:00etan trikitilariak Bizkargi gaina girotuko dute. Ondoren, 12:30ean, ekitaldia hasiko dute eta Larrabetzuko Bizkargi Dantza taldeak dantza egingo du. Ostean, etxanotarrek Txuzoa sartuko dute. Jarraian, 12:50 inguruan, bertso saioari ekingo diote. Hiru bertsolari arituko dira bertan: Etxahun Lekue, Onintza Enbeita eta Xabier Arriaga 'Txiplas'.

13:00etan, Ein Go taldearen eskutik, erromeria egongo da, 13:15ean esker ona adieraziko diote Xabier Amurizari, eta Eneko Larru-zearen kantaldiagaz emango diote amaiera ekitaldiari.

Politikan

Neskut Rodriguez Ormazabal
Herriaren Eskubidea



Markotik at egindako argazkiak

Noiz eta nola konturatzen zara jada ez zarela hain gaztea? Nahiz eta askok esaten duten adina ez dagoela NANaren zenbakian, bakoitzaren buruan baizik, une batean konturatzen zara urteak joan direla eta jada ez zarela hain gaztetxo.

Ni konturatu nintzen Athleticeko jokalariei batekin topo egin eta ume bat bezala ikusi nuenean. Orduan pentsatu nuen biologikoki nire semea izan zitekeela. 40 urte bete berri nituen eta berak 19 urte izango zituen?

Orduan konturatu nintzen duela 20 urte adin nagusikoa nintzela, eta nola ez, zure gaztaroko istorioak gogoratzen hasten zara. Eta pentsatzen duzu, uff!, nola aldatu den gizartea 20 urtean! Gero, lagunekin topo egiten duzunean, gaia atera eta Goienkaleko poteo eta parranda urteak, lagunekin egindako oporrak eta bizi izan zenituzten pasadizoak gogoratzen dituzue. Eta beti esaldi bera ateratzen da: "Eskerrak orduan ez zirela kameradun mugikorrak existitzen, bestela..."

Guztion artean bizitako, kontatutako eta gogoratutako sentazio horiek batzen gaituen irribarre zintzoa ateratzen digute. Ez dut ukatzen argazki zaharrak ikusteak ere irribarre hori ateratzen didanik, batzuetan lotsaz, baina beste askotan, argazki edo bideo batek ez du nire buruan oroitzapenekin jositako irudiaren sentazio bera lortzen.

Nahiz eta mugikorrek bizitza erraztu diguten (gehienetan), momentuaz gozatzea zailtzen digute, grabatuko gaituzten "beldur" garelako edo argazki perfektua ateratzeko gaudelako, markotik ateratzen den eta giroaren parte den guztia ahazten dugulako.

Durungaldea asteen

Urte biko etenaren ondoren, bueltan da Kainaberak antolaturiko hitzaldi zikloa


ELORRIO | Urte biko etenaren ondoren, Kainabera elkarteak hitzaldi zikloa antolatu du gaurkotasuneko eta giza intereseko gaiak lantzeko asmoz. Eguaztenean eman zioten hasiera zikloari. Hurrengo saioa maiatzaren 11n izango da. Bertan, Izaskun Duquek 'Zaintza-sistema baterantz' berbaldea eskainiko du, Jubila-

Erdellak kostaldetik ibilaldia eta kainoien jaitsiera antolatu ditu maiatzerako

ELORRIO | Erdellak ibilaldia antolatu du Euskal Herriko Kostaldetik: Baiona-Donibane Lohitzune. Maiatzaren 7an izango da. Bestalde, maiatzaren 28an eta 29an kainoien jaitsiera egingo dute Fagon eta Siresan. Izena ematea, erdellamt@erdellamt.com helbidera idatzita edo 94 658 21 79 zenbakira deituta egin daiteke.

Maiatzaren 8an janari bilketa egingo dute Traña-Matienan Zaporeak elkartearentzat

ABADIÑO | Maiatzaren 8an, 17:30ean, Traña-Matienako txosnagunean janari bilketa egingo dute Zaporeak elkartearentzat. Elkartetik eta txosna batzordetik azaldu dutenez, honako elikagai hauek behar dituzte: arroz luzea, pasta, espeziak, galletak, txitxirioak eta arrain kontserbak.



Amuriza, Bizkarra eta Pagonabarraga 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusian arituko dira

DURANGALDEA | Arabako bertsolarien faltan, Bertsozale Elkartek Txapelketa Nagusian izango diren bertsolarien izenak jakinarazi ditu. Durangaldeko hiruk abestuko dute: Miren Amurizak, Aitor Bizkarrak eta Gorka Pagonabarragak.

Bizkarra abadiñarrarentzat eta Pagonabarraga durangarrarentzat lehenengo aldia izango da. Igor Elortza bertsolari durangarrak Txapelketa Nagusian abesteko aukera zuen; hala ere, 2017ko finalean jakinarazi zuen hurrengoan ez zuela parte hartuko.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak



BASA
Miren Amuriza
(Elkar)



DENA AMETSA DEN IRUDIPENA
Leire Vargas
(Elkar)



EIRA KUNTZARAKO MATERIALA
Eider Rodriguez
(Susas)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso



urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69



DIFERENTZIAK

Topatu 7 diferentziak.



HITZ EZKUTUA Irudi biek batera berba bat sortzen dute. Zein?











CIJK ALDA RIA

JK ALDA RIA




ZER BAI?

Biribildu itzazu okin honek behar dituen objektuak.



ITZALAK

Zein itzal dagokio
beheko irudiari?



MATEMATIKA

Egin ariketa hauek beheko
balioak kontuan izanda.

 = 3  = 4

 = 8  = 5


 +  /  =

 -  x  =

 x  -  =

IPUINA







Bi protagonista hauek kontuan izanda idatzi ezazu ipuin bat, gero etxekoei irakurtzeko.



[illegible]

BIKOTEAK SORTU

Lotu animalia bakoitza jaten duenagaz.



MARGOTU




Margotu behean zuri beltzez dagoen irudia.





ITZALAK

Zein itzal dagokio
alboko irudiari?



LABIRINTOIA





Maiatzaren 6an

ABADIÑO **sanprudentzioak**

Txiki merienda, 16:45ean, merkatu plazan.

Dj Kaktus, 17:15ean.

Gozategi + State Alerta + Estutu, 21:30ean, Traña plazan.

Bertso saioa: Igor Elortza, Jone Uria, Amets Arzallus eta Txaber Altube, 22:00etan, Errota kultur etxean. Gai jartzailea: Igor Galarza.

IURRETA **ikuskizuna**

‘Hondartzan perretxikotan’ (Txintxeta klipa eta Txorroskilo pailazoak), 17:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

ELORRIO **dantza**

‘Bailar Agora’ (Marta Alonso Tejada), 20:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA **dantza**

‘Ausarta’ (Loturak), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Maiatzaren 7an

ABADIÑO **sanprudentzioak**

Paella txapelketa, 11:30ean, merkatu plazan.
Iluntze dantza taldearen kalejira eta alardea, 12:30ean, Traña plazan.
Txupinazoa eta herri bazkaria, 14:30ean, Traña plazan.
Ondoren, **Gazte Egune**ko jokoak, Trañako Gazte Asanbladak antolatuta.
Ugasio txapelketa, 16:00etan, merkatu plazan.
Tortilla txapelketa, 17:30ean, merkatu plazan.

Kalejira Sakatu taldeagaz

18:30ean, Txosna Batzordeak antolatuta.

Nikotina + McOnak + Dj Txusti + Inshore Music, 22:30ean, Traña plazan.

Macro Km 69, 23:00etan, Trañabarren etorbidean.

DURANGO **ikuskizuna**

‘Irrien lagunak: Elkartasun jantokia’, Kurutziaga ikastolan. Tailerrak 17:00etan, txokolatea 17:30ean, eta ikuskizuna 18:30ean.

ZORNOTZA **ikuskizuna**

‘Martin Zalakain’ (Harkaitz Cano, Juan Antonio Urbeltz eta Ander Lipus), 20:00etan, Amorebieta IV Frontoian.

Maiatzaren 8an

ABADIÑO **sanprudentzioak**

Umeentzako jolasak, (11:00-13:30/16:00-19:30), Traña plazan.

Perretxiko pintxoen dastatzea, 13:30ean, Pinoko plazan (Geredixa Mikologi elkarte).

Jubilatuen bazkaria, 14:00etan.

Show cooking eta Txiki Txef Zigor Iturrietagaz, 17:30ean, Traña plazan. Era berean, **janari eta arropa bilketa solidarioa** Zaporeak elkartearentzat. Txosna Batzordeak antolatuta.
Donien Atxa kentzea, 20:00etan.

DURANGO **bertsoak**

Durangaldea Uztabarritzen bertso zirkuitua, 12:30ean, Benita Uribarrena parkean.

‘Baby esferic’

ANTZERKIA **DURANGO :: Maitzak 8**

Ume-begietatik bidaia dibertigarria egitera gonbita

San Agustin kulturguneak etxe-ko txikienei zuzenduriko obra ikusteko aukera eskainiko du domekan, maiatzaren 8an. Aboon Teatre konpainiak *Baby Esferic* antzezlan aularatuko du, Lurrari eta horren oinordekoei egindako omenaldi bat, egileek azaldu dutenez. Emanaldi bi eskainiko dituzte, 17:00etan eta 18:00etan.

"Planetagaz eta bertako bizi-lagunekin lotzen gaituen magiaz" berba egiten du obrak, konpainiak azaldu duenez. Horretarako, askotariko istorio eta

paisaiak erabiltzen dituzte. *Baby Esferic* obrak bidaia bat egiteko proposamena egin gura dio ikusleari, "berraurkitzeko eta gure etxeagaz emozionatzeko bidaia dibertigarri bat, ume-begietatik", azaldu dutenez. Bizilagun esferiko dibertagarriak izango ditu ikusleak bidaialagun: marmoka dotoreek itsas hondora murgilduko dute, mila urteko dortokak bizitzaren zikloa erakutsiko dio, eta basoan erle biltzaileek kooperazioaz eta adiskidetasunaz gozatu dute, besteak beste.

Alaia Martinek, Uxue Alberdik, Ander Aldazabalek eta Iruri Altzerrekak egingo dute bertsotan. Gai jartzailea: Itxaro Juaristi.

ELORRIO **ikuskizuna**

‘Liluragarria, gorputz barrura goaz’ (Ene Kantak), 17:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA **kalejira**

Xake kalejira eta kontzertua Anaka taldeagaz, 12:30ean, Zelaietatik Herriko Plazara.

Maiatzaren 8ra arte

DURANGO **erakusketa**

‘Orgullo valiente’, San Agustin kulturguneko sarreran.

Maiatzaren 9ra arte

ABADIÑO **erakusketa**

San Prudentzio jailetako kartel lehiaketako lanak, Errota kultur etxean.

Maiatzaren 11n

ELORRIO **berbaldia**

‘Zaintza-sistema baterantz’, 19:00etan, Jubilatuen Etxean. Hizlaria: Izaskun Duque Santacoloma, Bizkaiko Batzar Nagusietako ahaldua. Kainabera elkarteak antolatuta.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Canallas**

barikua 6: 19:30

domeka 8: 19:00

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• **Dr Stranger en el multiverso de la locura**

barikua 6: 19:30/21:15

zapatua 7: 17:30 /20:30/21:30

domeka 8: 17:00 /20:00

astelehena 9: 19:00/20:15

martitzena 10: 19:00

eguaztena 11: 18:30

• **Red Rocket**

barikua 6: 20:00

zapatua 7: 18:30 /21:00

domeka 8: 17:00/19:30

astelehena 9: 19:00

martitzena 10: 19:30

eguaztena 11: 18:30

• **La Jefa**

barikua 6: 19:00

zapatua 7: 19:15

domeka 8: 19:30

astelehena 9: 18:00

martitzena 10: 19:30

• **El secreto de Vicky**

zapatua 7: 17:00

domeka 8: 17:30

• **Itsasoan Gaittun**

eguaztena 11: 19:00

• **Durango, oroimenaren**

gogoan

eguna 12: 19:00

:: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

• **La última película**

zapatua 7: 20:00

domeka 8: 20:00

astelehena 9: 20:00

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• **Canallas**

zapatua 7: 20:00

domeka 8: 20:00

astelehena 9: 20:15

• **Santa Cruz, el cura**

guerrillero

martitzena 10: 20:15


• **Las aventuras de Pil**

zapatua 7: 17:00

domeka 8: 17:00

merkataritza gida sarean

anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida euskaraz eta sarean!***

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902

Argazkiak - Datuak - Kokapena

(urtean 50€)

“Hizkuntzen arteko jauziek Euskal Herriko errealitatea islatzen dute”

Artez Hobek Zornotza aretoan estreinatuko du bere azken lana, (El)BION(m)BO(A); 20:00etan izango da emanaldia

ANTZERKIGINTZA • ARITZ MALDONADO
Artez Hobe zornotzarrek osaturiko antzerki konpainiak bigarren obra estreinatuko du maiatzaren 13an, (El)BION(m)BO(A). Larraitx Garciak zuzentzen du obra, eta idatzi ere berak egin du.

Zer da (El)BION(m)BO(A)?

Norberaren nahi edo ideiei buruzko gogoeta bat da. Askotan uste dugu kanpotik datozen mugengaitik ez ditugula betetzen, baina norberaren mugengatik izaten dira sarritan. 70 urteko gizona da protagonista, Angel; bizitza osoan eredu bati jarraitu dio, eta amaierarako dio nahikoa dela, eta benetan gura duen moduan bizitzeko ordua dela erabakitzen du.

Hasierako asmoa antzerki labur bat edo mikroantzerki bat egitea zen.

Bai, hori da. Xabier Goitiandia, Angel pertsonaiaren azalean sartzen dena ez da aktorea. Txikitik antzerkigintzan zeozer egin zuela esan zidan, baina hori baino ez. *Amaren eskuak* egitean musika egin zuen; soinu banda egitea eskatu nion eta prest agertu zen. Nik antzeztan nuen bitartean, berak zuzenean jotzen zuen. Bira hori amaitu genuenean, txikitako har hori zuela aitortu zidan. Gero pandemia heldu zen eta antzerki txikia idatzi nuen, bera buruan nuela. Telefonoz berba egin genuen. Hamar minutuko obra bat egin gura nuen, antzezlan oso bat egitea gatzaxoa izango zelakoan. Ostean, Zornotzako Udalak zero kilometroko egitasmoa egin zuen; aurkeztu eta baiezkua eman zigutenean, antzezlan luzatu behar izan nuen. Xabierrek asko sufritu du pandemia garaian, eta berarentzat

opari baten modukoa izan dela dio. Ume txiki baten moduan disfrutatzaren dabil.

Euskara, gaztelania eta frantsesa uzartzen dituzue antzezlanean.

Amaren eskuak antzezlan euskara hutsean izan zen. Halere, euskaraz ez zekitenek ere ulertzea gura nuen, eta ahalegindu nintzen metaforak erabiltzen horretarako. Oraingoan, gauzak modu sinpleago batean transmititzen ahalegindu naiz, eta hiru hizkuntzatan. Nire ustez, gure errealitatean nahiko ohikoak dira hizkuntzen arteko jauziak. Euskaraz ulertzen ez dutenei aukera bat eskaintzeaz gainera, Euskal Herriko errealitatea islatuko dela uste dut. Ea zelan irteten den.

10 minutuko mikroantzerkia zena ordubeteko lan bilakatu dugu zero kilometroa egitasmoari eskerrak

Gogotsu zaudete estreinurako?

Bai! Urduritzen ere hasita gaude jada (barreak). Azken finean, Xabier orain hiru urte igo zen azkene-koz taula gainera, eta gitarraren atzean, gainera. Buruan bueltaka du ea testu guztia gogoratuko duen. Goitiandia dantzaria izandakoa da Lolin, eta Markeliñeren antzerki tailerretan ere parte hartu du, baina gutxi; Amagoia Azkona ere ibilitakoa da tailerretan, baina gutxi, eta igartzen da urduritasun maila hori.

Urduritasun puntu hori edukitzea ona ere bada.



Bai, bai, neuk ere hori esaten diet. Taula gainean, oihala igotzear da goen azken une horretan, sarritan galdetu diot neure buruari 'Zer egiten dut nik hemen? Hobeto nago etxean', baina hori normala da. Niri asko gustatzen zait antzerkia, benetan bizi dudana gauza bat da, baina beldurtu egiten naiz une horretan. Eta hori sentitzea ona da, eta normala. Bizirik zaudela erakusten du horrek.

Zuk denbora gehiago daramazu antzerkigintzan.

Amaren eskuak eta (El) BION(m)BO(A) neuk idatzi ditut, osorik, eta hori egin dudana lehenengo aldia da. Aurretik ere idatzi izan dut zeozer, baina beti gorde izan dut neuretzat. Hezkuntzan lan egiten dut, eta ama ere banaiz. Garaia heldu zen aukeraketa egiteko, eta antzerki-

gintzan beste modu batera jardutea aukeratu nuen; ezinezkoa zitzaidan umeak, lana, eta astebururo saioak uztertzea. Horrela sortu nuen *Amaren eskuak*; neu arduratu nintzen idazteaz, antzezteaz, ekoizteaz,

Oraingoz Zornotzako da programatuta dugun emanaldi bakarra; hala ere, beste emanaldi batzuk lotzen gabiltza

guztiaz, musikaz izan ezik. Eta oraingo honetan, kontuan izanda hiru aktore egon behar zirela, nahiago izan dut zuzendaritzaz arduratu eta antzeztea alboratzea.

Zer gurago duzu, antzeztu ala zuzendu?

Taula gainera igo eta fokuak igartzan ditudan bakoitzean, negargura eta antzeztera itzultzeko gogo itzela sartzen zait! (barreak) Baina antzezle bakoitzari barruan duen onena ateratzea eta zuk buruan eta bihotzean duzun horregaz lotzea ere itzela da.

Baduzue beste emanaldirik aurreikutsita?

Ez, oraingoz Zornotzako da programatuta dugun bakarra, baina programatzaileekin berbetan gabiltza. Oraingoz ez daukagu datarik zehaztuta, baina antzezlan ikusteko aukera gehiago egongo dela uste dugu. Pozik gaude, gainera, Kantabriatik ere deitu digute eta. Euskarazko zatiak apur bat moldatu beharko ditugu.

ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK

ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO PROZESUAK ETA KALITATEA

AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA

WEB APLIKAZIOEN GARAPENA

MEKATRONIKA INDUSTRIALA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA

BEROA SORTZEKO INSTALAZIOAK

MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA

Lanbide Heziketa

EMAN IZENA

lea artibai
ikastetxea

94 616 90 02
info@leartik.eus
www.leartik.eus

Aforo mugatuak!

Zatoz ATE IREKIETARA

MAIATZAK 12 eta 19, 17:00

Abadiñok Koba Live jaialdiaren lehenengo edizioa hartuko du, ekainaren 25ean

Metal eta rock doinuak entzungai egongo dira jaialdi honetan. Sarrera doakoa izango da



Ezkerretik hasita, Mikel Garaizabal, Argi Abad eta Sergio Correa.

MUSIKA • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Koba Live jaialdia jaio da Abadiñon, metal eta rock doinuak erreferente bihurtu gura dituen jaialdia. Sugaar musika elkarteak antolatuta, Abadiñoko Udalaren laguntzagaz, eta ekainaren 25ean izango da, Traña-Matienako eskoletako futbol zelaian. Sarrera doakoa izango da. Luzaroan irauteko asmoz sortu duten jaialdiak zazpi talde hartuko ditu lehenengo edizio honetan. Kartelburuetariko bat Vita Imana talde madrildarra da. Talde madrildarragaz batera, Barakaldoko Vhaldemar taldea, Legazpiko El-

bereth, Gasteizko The Faithless eta eskualdeko The Kraven eta Orion Child arituko dira. Unholy Covers taldeak emango dio amaiera

Guztira, zazpi talde arituko dira Koba Live jaialdian; zazpi taldeetariko bi eskualdekoak dira

jaialdiari. "Modu berezian amaitu gura genuen jaialdia eta Bermeoko Unholy Covers bertsio taldeko ki-deak oso aproposak dira horretara-

ko", azaldu du Sergio Correa Sugaar Musika Elkarteko arduradunak. Bestalde, udaletik jakinarazi dutenez, Koba Live jaialdia "apustu bat" da. "Herriar batzuen apustu pertsonala da. Aspalditik lantzen ibili dira eta ikusi egin beharko dugu zelako harrera duen lehenengo edizio honek, baina jarraitzeko asmoz heldu da Abadiñora. Gainera, honek eskaintza kulturala dibertsifikatzeko balioko du", azaldu du Argi Abad zinegotziak. Mikel Garaizabal alkateak adierazi du "oso ilusionatuta" daudela jaialdi honegaz.

Gerediagak Burgada, Gomez eta Martin saritu ditu

36 lan aurkeztu dituzte Durangaldeko Ikerlari Gazteen Sarira; saritu bakoitzak 500 euro jaso ditu

IKERKETA • ARITZ MALDONADO
Gerediaga elkarteak ikus-entzuzko lan bi eta idatzizko ikerketa lan bat nabarmendu ditu Durangaldeko Ikerlari Gazteen Sarian. Peio Martin (Zornotza, 17 urte), Ibone Gomez (Zaldibar, 18 urte) eta Adrian Burgada (Durango, 29 urte) saritu

dituzte. Lehenengoak *Elkarriketa amamarekin* aurkeztu zuen, Durangaldera etorritako migratzaile baten istorioa. Gomezek *Euskal bidaia-riak* proposatu du, Durangaldeko zenbait herritan bidaia. Burgadak Goi-arroko landa-paisaiaren bila-kaera aztertu du Ibaizabalen.



Adrian Burgada, Ibone Gomez eta Peio Martin sarituak.

Picassoren, Barcelóren eta Warholen lanak Durangon ikusgai egongo dira

Nazioarteko 23 artistaren 35 obra erakutsiko dituzte

ARTEA • ARITZ MALDONADO
Warhol, Picasso, Dalí eta Chillida nazioarteko artista ezagunen lan originalak erakutsiko dituzte Durangoko Arte eta Historia museoan, uztailaren

3ra bitartean. Ohikoa den moduan, bisita gidatuak eskainiko dituzte museoan; maiatzaren 10ean eta 31n, eta ekainaren 7an eta 28an egingo dituzte euskarazkoak.

Gai librean

Eskerrak bideari

Badira memorian lokartuta eduki ditudan zenbait ohitura, pertsona edota gogorapen. Pandemia aurreko jai girora bueltatzen hasi garen garaiotan, agertu dira aspaldian ikusi gabeak. Azkenekoz Matienako jaietan gertatu zait. Plastikozko lore saltzailea loreak saldu guran hurbildu zitzaigunean. Zeharo ahaztuta neukan gizon hura. Bere moduan bueltatu dira txosnak, plastikozko edalontziak, alkoholemia kontrolak, banangoa, kotxe artean txiza kleenex erdiarekin egitea, pegatinak txaketan, goizaldeko kebab-a, atea sekula ondo itxi ezin zaizkien kale-komunak, "allegau naz etxera", Korrika Euskal Herri osoan zehar, Aberri Eguna Iruñan, edota Gazte Martxa Nafarroan barrena. Elizondon izan ginen bi urte igaro eta gero, eta han ere ez ziren falta izan



Miren Erdoiza Mujika Irakaslea

Pandemia aurreko jai girora bueltatzen hasi garen garaiotan, agertu dira aspaldian ikusi gabeak

Eskerrak bideari; badagoelako herria eta iraultza egiteko (beste) erarik

zapatila itsaskorren zarata eta tragoak erosi ahal izateko tiketak. 21:00etan Ibil Bediren kontzertua ikustera joan ginen. Punta-puntako orduan, atsedetik hartzeko beta ematen ez zuen egitarauaren barruan. Joder, zenbat behar genuen banda nafar hau. Orduan jabetu nintzen, agian, parrandako elementu asko bueltatu diren arren, zenbait

kontu aldatu egin direla: nerabeak poesia kantatzen, bollerak morreatzen edota oholtzan bi neska* gazte biolina eta saxofoia jotzen. Bai, hau guztia momentu berean gertatu zen. Ohartu nintzen, orduan, badirela aldarrikatzeko hainbat modu, eta behingoz, apurtu ditugula zenbait molde. Izan ere, mezua zabal daiteke kamiseta punky bat jantzita, edo soineko marabilloso batekin oholtzara igota. Mikrofonotik presoei maite ditugula esanez, edo hildako amari kantatuz. Eskerrak bideari; badagoelako herria eta iraultza egiteko (beste) erarik. Maite ditut garai zaharrak eta pasioz begiratzen diot garai berriari. Bideari eskerrak, bi urteren bueltan, lagunak egun batzuetarako Martuteneko patioa utzi eta asteburuan Matienako plaza zapaldu zuelako, Ibil Bedik Elizondo irauli zuelako eta musukorik gabe plazetan morreatzen garelako.

Zornotzak igoeragaz erantzun gura dio klubetik egindako apustuari eta Zaldua lehenengoz igo daiteke bere ibilbidean

Saskibaloia klub biek etxean antolatuko dituzte Lauko Finalak asteburuan. Zapatu arratsaldean izango dira finalerdiak, eta domeka eguerdian finalak



Zornotza saskibaloia taldeko —goian— eta Zaldua saskibaloia taldeko jokalariek aurtengo familia argazki banatan.

SASKIBALOIA • J. DERTEANO

Zornotza eta Zaldua saskibaloia taldeek modurik onenean amaitu dezakete denboraldia: mailaz igota. Hori gutxi balitz, etxean jokatu dituzte Lauko Finalak. Kiroldegia jendez betetzea eta zaleen hauspoa sentitzea itxaroten dute klub biek.

Zornotzak Bilboko Berriotxoaren kontra jokatu du finalerdia, zapatuan, 16:00etan, Ixerbekoan. Ostean, Askartzak eta Deriok neurtuko dituzte indarrak. Finala domekan izango da, 12:00etan. Irabazleak Bizkaiko liga nagusitik Euskadi mailakora salto egingo du.

Azkenaldian, emakumeen saskibaloia sustatzeko ahalegin berezia egiten dabilza Zornotzako klubetik. "Apustu sendoa egin dute eta gudan ipinitako konfiantzari erantzun gura genion. Normalean baino entrenamendu saio gehiago egin dugu, domekaren batean ere bai, eta horrek asko lagundu digu", adierazi du Paule Portilla jokalaria.

Ia jokalaria denak zornotzarrak dira. Harrobiaz gainera, beste klub batzuetan zebiltzan zornotzarrak berreskuratu dituzte. Portilla da eurretari bat. Iaz Galdakaoko Ibaizabalen aritu zen, askoz gorago, saskibaloiko Bigarren Mailan, baina aurtengo etxera bueltatzea erabaki du "saskibaloiaz gozatzera". Klubetik egindako apustuaren beste adibide

bat Josema Alcantara entrenatzaileraren fitxaketa da. Ibaizabalen aritu da eta esperientzia handia du goragoko mailetan.

Goragoko mailetan esperientzia handia duen Josema Alcantara da Zornotzako entrenatzailea

Zaldua "sorpresa atsegina"

Zalduek Portugaleteren aurka jokatu du finalerdia, zapatuan, 17:00etan, Zaldibarko kiroldegian. Bigarren finalerdia Santutxuren eta Urdanetaren artekoa da. Finala domekan izango da, 12:00etan. Irabazleak Bizkaiko Bigarren Erregionaletik Lehenengo Erregionalera igoko da.

Zaldibarren iaz berreskuratu zuten emakumeen taldea eta entrenatzaile ikastaroa amaitu berri duen Oscar Sanchezek lehenengoz hartu du talde senior baten gidaritza. Esperientzia gutxiagaz izan bada ere, sekulako errendimendua eskaini dute, liga osoan partidu bakarra galduta. "Hainbeste partidu irabaztea sorpresa atsegina izan da", dio urte askoan mutilen taldean jokatu duen Sanchezek. Fitxaketek taldearen maila igo dute eta Iscander de Dios bigarren entrenatzaileak "asko" lagundu die taktikoki hobetzen.

Zornotzan Master Kaiolako finalak jokatu dituzte etzi

Hiru finaletan ez dago faborito argirik eta pare pareko partiduak itxaroten dira Amorebieta IV pilotalekuan

PILOTA • J.D.

Martxoan 28 pilotarik hasi zuten txapelketa eta sei baino ez dira geratzen. Euren artean erabakiko dira aurtengo Master Kaiolako hiru txapelkunak, domekan, 17:00etan hasita.

Emakumeetan Olatz Agirrezabalaga dimoztarrak eta Amaia Aldai gernikarrak neurtuko dituzte indarrak. Agirrezabalaga sasoi betean dago binakako Master Laboral Kutxa txapelketa irabazita, baina lau t'erdian indarrak parean egongo direla uste dute adituek.

Beñat Zubizarreta ataundarrak 22 urtez azpiko finala jokatu du, gazte adina duen arren. Iratiz anaiak profesionalean jokatzen du, Baigorri, eta berak ere bide

berdina darama. Beñatek Oier Hormaetxea izango du aurkari, gaztea izanagaitik afizionatueta esperientzia baduen pilotari lezamarra. Biek euren onena ematen badute finalak ez du faborito argirik.

Indarra abildadearen aurka

Azkenik, gazte mailan Arkaitz Eskuza laudioarrak eta Beñat Apeztegia doneztebearra heldu dira finalera. Eskuzak sake beldurgarria du. Apeztegiak fin aritu beharko du sakea bueltatzen. Horretan asmatzen badu, irabazteko aukera du, lau t'erdiko pilotari petoa delako, langilea eta artista. Batek indarra du arma nagusia, eta besteak abildadea.



Txapelketan parte hartu duten pilotariak aurkezpen egunean.



Abadiñoeko jokalariai gol bat ospatzen.

Klubak doako sarrerak ipini ditu Abadiñoen igoera ekarri dezakeen partidua ikusteko

Traña-Matienan jaiak direnez, zapatuan zaleak zelaira joatera animatzeko modua da

FUTBOLA • J.D.

Traña-Matienako jaietan ospakizunerako beste motibo bat emateko prest daude Abadiño futbol taldeko jokalariai. Zapatuan, 16:30ean, Lekeitioaren kontra jokatu dute Astolan, eta irabaziz gero Ohorezko Mailara igoko dira, Bizkaiko kategoria nagusira. Aurten, Iurretako eta Elorrio ari dira bertan.

Sanprudentzioak ekimenez beteta datoz zapatuan: Gazte Eguna da, paella txapelketa dago... baina klubak Astolan gura ditu zaleak. Hori dela eta, honako erabakia hartu dute: zelairako sarrera doakoa izango da. "Badakigu ez dena

erraza izango egun horretan jendea erakartzea, baina ea denon artean giro polita sortzen dugun", adierazi du Gorka Moreno taldeko entrenatzaileak.

Bihar igoera matematikoki lortzeko, garaipena behar dute. Porrotagaz edo berdinketaz, hurrengo egunera arte itxaron behar dute, Arratiak orduan jokatu du eta. Arratiak irabazi ezik, Abadiño igoera ospatzeko moduan egongo da domeka eguerdian.

Abadiñoen azken urteetako martxa azpimarratzekoa da. Bost urtean hirugarren igoera lortu

dezake Gorka Morenoren eta bere lantaldearen gidaritzapean.

Zalduaren bolada ona

Maila berean, Zaldibarko Zaldia sekulako mailan dabil azken jardunaldietan. Azken bost partidua irabazi egin ditu, eurentariko batzuk gol asko sartuta. Ez hori bakarrik, partidu horietan ez du gol bakar bat ere hartu. Zalduaren helburua mailari eustea da. Euren azpitik hamar talde daude, baina ez dago fidatzerik: azken seiak seguru jaitsiko dira, eta baliteke beste bi-hiru ere jais-tea, arrasteen ondorioz.

Igoera postuan dagoen Almeria, Amorebietaren hurrengo finala

Fuenlabradaren kontrako garaipenak hauspotuta, mailako talderik indartsuenetarikoaren zelaia bisitatuko dute

FUTBOLA • J.D.

Amorebietak final bat jokatu zuen joan zen asteburuan eta bihar beste bat izango du. Matematiketik bestelakorik esan arte, ez dago arnasarik lasai hartzeko astirik. Baina horrela dabil bitartean, bizirik jarraitzen duten seinale izango da, gutxienez. Horixe pentsatuko zuten jokalariai eta zaleek joan zen asteburuan Fuenlabrada 2-1 menderatu zutenean. Gainera, Malagak eta Sporting Gijonek galdu egin zutenez, orain lau pun-

tura dago salbazioa lau jardunaldiren faltan.

Asteburu honetan erronka handia dute aurretik. Almeria bigarren sailkatuaren zelaia bisitatuko dute. Haritz Mujika entrenatzaileak adierazi du "irabaztera" joango direla eta taldea "gogotsu" ikusten duela. Gertatzen dena gertatzen dela, Amorebieta bizirik helduko da hurrengo jardunaldira: Huesca, Cartagena eta Ponferradina izango dira azken hiru aurkariak.



Amorebietako jokalariai Fuenlabradaren kontrako garaipena ospatzen. @SDAMOREBIETA

Jokaldia

Non dago elkartea?

2020ko abuztuaren 16an, Mikel Larunbek tarte bat hartu zuen partida baten osteko elkarrizketan Baikoren azken erabakiak salatzeke. Galdakoztarra enpresaren bidegabekeriak publikoki gaitzetsi zituen lehen pilotaria izan zen eta, bereziki, Eskirozi, promozio mailako binakako txapeldun izan eta 10 egunera, kontratua ez berritzeko erabakia kritikatu zuen, elkartasun mezu eredugarri batekin. Hilabete eskasera, Baikoko pilotari gehienak, Beotibarren egindako prentsaurreko batean, enpresaren erabakiekin desadostasuna adierazi eta grebarako prest agertu ziren.

Askorako eman zuen grebak: pilotarien batasuna, bi alderdikoen arteko tirabirak, grebalari taldearen higadura



Iñaki Iza Zarazua
Pilotari ohia

2020ko abuztuaren Mikel Larunbek tarte bat hartu zuen partidu baten ostean Baikoren azken erabakiak salatzeke

egunak pasa ahala, elkarte polemiko baten sorrera... Bada, iraun zuen bitartean Larunbe bera izan zen, Ibai Zabalarekin batera, enpresa-batzordeko ordezkari, eta aipagarria izan zen sindikatuarekin, komunikabideekin zein enpresarekin harremanean egindako lana. Hala ere, batzuek konponbidearen giltzarritzat duten elkartean ez sartzea erabaki zuen bakarra izan zen Mikel. Izan ere, ez zuen onartu, besteak beste, enpresa-batzordea eratu ondoren, beste batzuen artean Olaizola eta Urrutik sortutako elkarte baten bitartez egitea. Behin greba bukatuta, jakin-min eta morbo handia piztu

zuen alde bietako pilotarien arteko harremanak. Hala ere, ez genuen denbora askorik behar izan gertatutakoak "ahaztu" eta giro onaren alde egin zutela ikusteko. Zale askorentzat ulertezina zen pilotariet, kantxan ez ezik kantxatik kanpo ere, ezer gertatu izan ez balitz bezala jokatzeko. Horrela, pasatutakoak errazegi ahaztu zituztela esan zuten askok.

Arestian Larunberi buruz aipaturikoak ere erraz ahaztu direla dirudi. Izan ere, inolako min fisikorik izan gabe, bost partidu baino ez ditu jokatu 2022 urte osoan; azkena, martxoaren 1ean. Hala ere, enpresa hartzen ari den mendekuaren aurrean, inork ez du egoera salatu. Non dago elkartea? Non elkartasuna? Ez dirudi interes indibidualak alde batera uzteko prest daudenik.



Jairik jai!

Traña- Matienako San Prudentzioak





Gure aukerak,
zuretzat onenak!

Saldu, erosi, trukatu, oparitu... EUSKARAZ!



Botikak	
BARIKUA, 6 · 09:00-09:00	MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
UNAMUNZAGA MURUETATORRE 2C - DURANGO	09:00-22:00
GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	ASTELEHENA, 9 · 09:00-09:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	ETXEBARRIA MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO
IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
ZAPATUA, 7 · 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-13:30	MARTITZENA, 10 · 09:00-09:00
NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO	BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO
UNAMUNZAGA MURUETATORRE 2C - DURANGO	MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
GAZTELUMENDI J.A. ABASOLO 2 - DURANGO	09:00-22:00
BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARRIA SASIKOA 17, DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
DE DIEGO INTXAURRONDO 22. - DURANGO	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
FARMAZIA MATIENA TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO	EGUAZTENA, 11 09:00-09:00
JAIO-ABENDIBAR ERREKAKALE 6. ELORRIO	DE DIEGO INTXAURRONDO 22. - DURANGO
BALENCIAGA EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO	MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA	09:00-22:00
GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-14:00	EGUENA, 12 · 09:00-09:00
IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	SAGASTIZABAL ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO
09:00-22:00	MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
DOMEKA, 8 · 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak
ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA


Zorionak, **Irati (890. alea)**!
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia



Zorionak **Iurdan!** Debekatutako besarkadak emateko desiatzen gaude zure senide eta lagunok. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu! Eutsi!



Zorionak, **Nahia!** Maiatzaren 10ean 9 urte egiten dituzu, neska handi! Disfrutau eguna eta asteburuko ospakizunak! Muxu potolo bat aitaren eta amaren partez. Maite zaitugu!



Izarrek 9 urte egingo dauz maiatzaren 9an. Zorionak, **Izar,** ljozetako eta Markiñako danan partez! Ondo pasau! Mosu haundi bat!



Zorionak, **Izei!** Ondo pasatu lagunekin merendolan eta etxekoekin bazkarian. Gure etxeko mutil txiki-txoa izaten jarraituko dozu, Joanes eta amarentzat. Mosu bat maite zaitugun danon partez. Zorionak be egun berekoa zaren Berrizko lagun handi horri! Animo eta besarkada bat zuretzat.

Eguraldia		
ZAPATUA 🌡️ 21° / 7° ☀️	ASTELEHENA 🌡️ 24° / 10° ☀️	EGUAZTENA 🌡️ 27° / 13° ☀️
DOMEKA 🌡️ 22° / 8° ☀️	MARTITZENA 🌡️ 26° / 12° ☀️	EGUENA 🌡️ 26° / 13° ☁️

GAER
DESINFEKZIOAK



Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxe: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

“Kalistenian gorputzaren pisua bakarrik baliatuz lan egiten dugu”

Ainhoa Villarek Durangoko Ibaizabal Calistenia parkean 'masterclass' saioa eskainiko du Alex Gonzalezegaz, 17:30etik 20:00etara, Durangoko Udalak eta Ekanak antolatuta



Ainhoa Villar Ortiz

Calistenia modalitatea egiten du

ABADIÑO | 1995

ABADIÑO • AITZIBER BASAURI

Ainhoa Villar abadiñarra orain urte eta erdi eskas hasi zen kalistenia entrenatzen, eta lehenengoz lehiatuko da, maiatzaren 14an, Malagako Kopan. Erresistentzia zirkuitu sorta egingo du eta gogo eta ilusio handiagaz doa. Ekainaren 5eko finalean lehenengoen artean geratzea du erronka, Espainia mailako txapelketan sartzea lortzeko. Asteazkenera egunez entrenatzen da, ordu eta erdi. Lau egunetan kalistenian jarduten du eta bosgarrenean hankak indartzeko ariketak egiten ditu. "Gorputz osoa berdintzeko. Kalistenian ezin ditugu hankak behar den beste indartu", argitu du.

Zer da kalistenia?

Kalistenian aritzerakoan, gorputzaren pisua %100ean kontrolatzea da helburua, eta indarra landu behar da horretarako. Gorputzaren pisua bakarrik baliatuz lan egiten dugu, beste ezer erabili barik, fitnesssean, bodybuilding egiterakoan edo kulturismoan ez bezala. Kalistenia taldeko modalitatea da gehienbat, eta aire librean entrenatzeko orduan eguraldiak eragina du.

Geroago eta ezagunagoa da gure artean.

Hala da. Gainera, oso garrantzitsua da kalistenia ezagutarazteko egingo dako lana. Oso emakume gutxi

gaude eta gehiago animatzea gura nuke. Aurreiritzi faltsuak ditugu. Uste dugun baino askoz indartsua-

Aurreiritzi faltsuak ditugu. Uste dugun baino indartsuagoak gara emakumeak, gizonak bestekoak

goak gara emakumeak, gizonak besteko indartsuak, eta eurek egindako guztia egin genezake. Konstantziagaz, pasioa ipinita eta

behar den denbora eskainta lortu genezake maila horretara heltzea. Askotan guk geuk mugatzen dugu geure burua, uste dugu ezin dugula horrelakorik egin edo gizonentzako kirol bat dela. Gutxietsi egiten dugu geure burua, gizonak baino ahulagoak garela barneratzen joaten gara, eta oso indartsuak gara.

Zeintzuk onura ditu?

Beste edozein kirolen moduan, osasuntsua da. Dena dela, gure gorputzagaz lortzen dugun koordinazioa nabarmenduko nuke. Gure gorputzaz, gure buruaz jabetzea, eta hori guzti hori menperatzea. Horretarako, urte asko behar dira.

Urte batzuk egin nituen fitnesssean eta kalistenia ezagutzean dena aldatu zen, besozko lehenengo altxaldia egin nuenean magikoa izan zen

Noiz hasi zinen kalistenia praktikatzen?

Itxialdian. Betidanik gustatu zait, baina hemen ez dugu kalistenia parkerik izan. Gainera, ez dut izan gertu erreferenterik horretan has-teko. Baina itxialdian bakarrik egotera, gimnasiorik barik, entrenatzen hasi nintzen. Banuen oinarri bat, aurretik hiru urtez fitnessa egin nuelako, eta bideoak ikusi nituen. Itxialditik irteterakoan, fitnessa utzi eta kalistenian hasi nintzen. Gero, 2021ean, kalistenia parkea ipini zuten Durangon, eta asko hobetzeko aukera izan nuen. Bertan entrenatzen naiz, ahal du-dan guztietan.

Zergaitik aukeratu zenuen kalistenia?

Bitxia da, sentimendu kontu bat izan zelako. Pertsona bat gustuko duzunean lez, eta ez dakizu zergaitik... Horrelaxe azaltzen dut kalistenia gertaturikoa (barrez). Urte batzuk egin nituen fitnesssean, eta kalistenia ezagutu nuenean dena aldatu zen. Lehenengoz besozko altxaldi bat egitea lortu nuenean barra finko batean eskegita, inoizko sententzia izan nuen, guztiz desberdina, magikoa.

Lau-hortza

Martin Loizate
Sarriandia
Behargina



Goizean oskorri

Paradoxa da: erregaiei eskas- sia dagoenean, iduri luke txin- parta bat nahikoa dela denak su har dezan.

Mikel Otero eta Alfons Perez etorri ziren urrian, Hitz liburu-dendak antolaturik az- ken honek kaleratu "Itun ber- deak pandemia garaian" libu- rua aurkeztera. Lagun batek galdetu zidan aurkezpenaren inguruan eta eman nion iri- tzia azalpen oinarritzkoegiak eman zituztela, igarri zutela- ko publikoarentzat berriak zirela klima aldaketarena, energia iturrien agorpenare- na eta itun berdeena. Lagunak erantzun zidan jendeak ez duela gaian interesik izango gasolina litroaren prezioa eu- ro bira igo artean.

Euria egin du ordutik, ez urtegiak betetzeko lain. A8an lanetik bueltan gatzela gaso- lindegiko afixak abisatu digu 95 berunik gabekoak gauditu duela euro biko langa berriro. Baina jarraian Ukrainako ge- rraz edo erregaiei gobernuek ezarri zergez mintzatuko zaizkigu, krisia koiuntura- la bailitzan. Ekologismotik planteatzen diren eztabaida horiek ez dute lehen orririk mereziko.

Ez dakit nori irakurri nion errazagoa zaigula bomba nu- klar baten osteko mundua- ren amaiera imajinatzea, be- rau eragin lezakeen sistemari alternatiba bat pentsatzea baino.

Eta astelehen goizean ko- txea hartuta abiatuko gara berriro A8an barna, eta ikus- tean zeruertza gorri segundo batez pentsatuko dugu hiriak su hartu duela. Dieselak ez du su hartzen, gasolinak bai, eta metanolaren garrak ikusezi- nak dira.



www.iurretalhi.eus
idazkaritza@iurretalhi.eus
Tel.: 944 66 88 00

ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonentzako Arreta
- Telekomunikazio Instalazioak

GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze-lan Elektronikoa
- Produkzioaren Programazioa

ESPEZIALIZAZIOA

- Industria-mantentzearen digitalizazioa



AURREMATRIKULA (ezinbestekoa matrikula plaza lortu ahal izateko)
Maiatzak 9tik 27ra arte

